



BIZKAIKO
ESPERIENTZIA
GELAK
AULAS
DE LA EXPERIENCIA
DE BIZKAIA

IRAKASGAIAREN TITULUA/ TÍTULO ASIGNATURA: [SOCIOLOGÍA DE LA VIDA COTIDIANA](#)

Irakaslea/Profesor/a: **Iñaki Martínez de Albeniz Ezpeleta**

Ikasgaiaren azalpena/Descripción de la asignatura

‘Eguneroko bizitzaren soziologia’ irakasgaiaren helburua da sakontzea egunerokotasunaren dimentsio anitzen (materialak nahiz sinbolokoak) egituraketan. Horretarako aztertzen dira, ikuspegi mikrosoziologiko eta kritiko batetik, eragile sozialek eguneroko bizitzari zentzua emateko darabiltzaten oinarri kognitiboak eta esanahi markoak. Zentzu komuna denez egunerokotasunaren eraikuntza sozialeko prozesuan nagusi den ezagutza mota, irakasgaiak arreta berezia jarriko du zentzu hori artikulatzeko eta transmititzeko moduan, bai eta ezagutza zientifikoaren — ikasleek beren prestakuntzan eskuratzen ari direna— eta esperientziaren — bizitzan eskuratu dutena— arteko harremanean ere.

Helburua da ikasleek ulertzea soziologiak eten egin behar duela zentzu komunarekiko lotura. Hau da, ez dela izan behar *zentzu komuneko zientzia* bat, *zentzu komunaren zientzia* baizik; hots, zentzu komuna indagazio xede duen zientzia. Azken batean, irakasgaiaren helburua da ikasleek familiaritasun harreman bat izatea zentzu komunarentzat arrotza den horrekin; hau da, errealitate sozialaren lanketa soziologikoarekin. Eta, aldi berean, nolabaiteko harridura sortzea, bai eta dagokion zalantza metodikoa ere, familiarra edo ezaguna zaigun horrekiko: gure eguneroko esperientzia.

Irakasgaiaren oinarri teorikoak eta kontzeptualak finkatu eta gero, irakasgaiaren dimentsio nagusiak garatuko dira ondoz ondoko bloke tematikoetan:

- a) Eskura ditugun baliabide kognitiboak, dramaturgikoak eta emozionalak gure bizi esperientzia eraikitze eta gizartean orientatzeko.
- b) Egunerokotasunaren espazio/denbora artikulazioa, arreta berezia jarrita espazioa hautemateko eta denbora esperimentatzeko dugun moduen transformazioan.

- c) Bizi zikloaren transformazioak, dimentsio bereziki garrantzitsua Esperientzia Geletako ikasleentzat.
- d) Teknologia berriek eguneroko bizitzan duten eragin gero eta handiagoa.
- e) Egunerokotasunaren arloan historikoki izan diren gatazka sozialak eta kulturalak, eta gatazka horietatik sortu diren mugimendu sozialak, bai eta bizitzeko arte berri bat sustatzen duten korrante estetiko berriak ere.

Gaitasunak/Competencias

- a) Eguneroko bizitzaren esperientziarekiko espiritu kritikoa garatzea, eta haren oinarri soziologikoen azterketan sakontzea.
- b) Eguneroko bizitza sostengatzen duten egitura sozialei eta instituzioei eragiten dieten aldaketa prozesuetan arakatzea.
- c) Bizi zikloa birpentsatzea, aldaketa sozialaren argitan.
- d) Zorroztasun analitikoa, trebetasun dialektikoak eta taldean lan egiteko gaitasuna garatzea.
- e) Ikasgelako esperientzia kritikoki hautematea, ikasleen egunerokotasunaren transformazio faktore gisa.

Edukiak/Contenidos

SARRERA: LEHEN URRATSAK SOZIOLOGIAN. ZENTZU KOMUNEN ZIENTZIA BATETIK ZENTZU KOMUNAREN ZIENTZIARA.

- 1. Eguneroko bizitzaren soziologia baterantz
- 2. Zentzu komuna eta kuestionamendu zientifikoa
- 3. Eguneroko bizitza eta gogoetazaletasuna: eguneroko bizitzaren/rako ezagutza eta esperientzia

I. GAIA: EGUNEROKO BIZITZAREN OINARRI SOZIOLOGIKOAK

- 1. Eguneroko bizitzaren kutxa beltza irekitzen
- 2. Fenomenologia soziala: ezagutza arrunta eta zentzu ez-komunak
- 3. Dramaturgia soziala: eguneroko bizitzan "jardun"
- 4. Ikasketa kulturalak: egunerokotasuna, hegemonia kultural eta politikoaren bektore gisa
- 4. Etnometodologia. Haustura esperimentuak, normaltasuna argitzeko eta gizartea egituratzeko tresna gisa

II. GAIA: EGUNEROKO BIZITZAREN ESPAZIO/DENBORA EGITURAKETA

1. Egunerokotasunaren espazio/denbora artikulazioa aro globalean:

- a. Mugak, sareak eta fluxuak
- b. Heterotopiak eta heterokroniak: tradizioa, modernitatea, postmodernitatea
- c. Tresna kontzeptualak: ez-lekuak eta tenporaltasun turbokapitalista
- d. Arkitektura, diseinua eta hirigintza, espazioaren politika gisa
- e. Eguneroko espazioetara "orientatutako" soziologia: etxetik mundura (eta alderantziz)
- f. Denboraren politikak: denbora, erritmoa eta azelerazioa (post)modernitatean
- g. Bizi-zikloen birdefinizioa (haurtzarora, gaztarora, helduarora, zahartzarora)

III. GAIA: TEKNOLOGIA ETA EGUNEROKO BIZITZA

- 1. Eguneroko bizitzaren oinarri materialak
- 2. Gizakiek eta ez-gizakiek partekatutako agentzia. Mihiztaketa tekno-sozialak: Internet, sare sozialak eta adimen artifizia
- 3. 0.unibertsoak: gorputza/identitatea/maitasuna/adiskidetasuna/sare sozialak/kultura eta artea/politika
- 4. Zientzia fikzioa, etorkizuneko tresna soziologiko gisa: utopiak eta distopiak

IV. GAIA: EGUNEROKO BIZITZAREN POLITIZAZIOA

- 1. Etxetik ibiltzeko moduko politikak: zer du politikotik egunerokotasunak?
 - a. *Mikropolitikak*: etxe eremua, eremu politiko gisa
 - b. *Teknopolitikak*: teknologiaren politizazioa
 - c. *Kosmopolitikak*: eguneroko bizitza eta erregimen klimatiko berria
- 5. Eguneroko bizitza, bizitzeko arte gisa
 - a. Egunerokoaren asmakuntza: habitatzea, ibiltzea, jatea...
 - b. Abangoardia artistikoak, mugimendu sozialak eta eguneroko bizitza

Metodologia/Metodología

Gaitegia eskola magistralen bidez sistematikoki garatzeaz gain (klaseen % 50), metodologia dialogiko, parte-hartzaile eta kolaboratibo bat planteatzen dugu, honako hauek oinarri hartuta: a) testuei buruzko eztabaidak, bai iturri soziologikoetakoak, bai hedabide eta sare sozialetakoak; b) era askotako ikus-entzunezko materialak ikustea; eta c) gaurkotasun eta interes sozialeko gaiei buruzko eztabaida irekiak ikasgelan.

Dinamika horietan, ikasleek trebetasunak eskuratu beharko dituzte ikuspegi urrun, kritiko eta analitiko batetik —Gizarte Zientziek eskatu bezala— inoiz jorratu ez dituzten problematiketan oinarritutako debatean. Gainera, ikastaroaren martxak aukera ematen badu, azter liteke ere irakasgaian landutako edo ikasleek proposatutako gaiei buruzko lanak taldean egiteko eta azaltzeko aukera.

Bibliografia/Bibliografía

Sarrera

Lalive D'épinay, C. (2008) "La vida cotidiana: Construcción de un concepto sociológico y antropológico", hemen: *Sociedad hoy*, 14, 9-31. or.

Lamo de Espinosa, E. (1996) "Observádo(se)", hemen: Lamo de Espinosa, E. *Sociedades de cultura, sociedades de ciencia*, Oviedo: Nobel.

I. gaia

Goffman, E. (1987) *La presentación de la persona en la vida cotidiana*, Buenos Aires: Amorrortu, 117-130. or.

Schutz, A. (1998) "Estudios sobre teoría social", hemen: Beriain, J. eta J.L. Iturrate, Para comprender la teoría sociológica, Iruña: EVD, 364-368. or.

Williams, R. (1958) "La cultura es algo ordinario". Hemen: <http://www.ramwan.net/restrepo/cultura/williams-cultura%20es%20algo%20ordinario.pdf>

II. gaia

Arpal, J. (1997) "Regularidades temporales y vida cotidiana", hemen: *Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua*, 235-253. or.

Auge, M. (2009) *Los no lugares: espacios del anonimato*, Barcelona: Gedisa.

Cruces, F. (1997) "Desbordamientos. Cronotopías en la localidad tardomoderna", hemen: *Política y Sociedad*, 25, 45-58. or.

Delgado, M. (2006) *El animal público. Hacia una antropología de los espacios urbanos*, Barcelona: Anagrama.

Lefebvre, H. (2013) *La producción del espacio*, Madrid: Capitán Swing.

Rosa, H. (2016) *Alienación Y Aceleración: Hacia una teoría crítica de la temporalidad en la modernidad*, Madrid: Katz Editores

III. gaia

Latour, B. (2017) *Dónde aterrizar. Cómo orientarse en política*, Madril: Taurus
Latour, B. (2020) *Dónde estoy. Una guía para habitar el planeta*, Madril: Taurus.
IV. gaia

De Certeau, M. (2001) "De las prácticas cotidianas de oposición", hemer: Blanco, P.
et al. *Modos de hacer: Arte crítico, esfera pública y acción directa*, Salamanca:
Ediciones Universidad de Salamanca.

Granés, C. (2011) *El puño invisible. Arte, revolución y un siglo de cambios
culturales*, Madril: Taurus.